

# Gotzon Garateren atsotitz bilduma

Gotzon Garate, Deustuko Unibertsitateko irakasle eta idazle prestuak, sekula egin den euskal atsotitz bildumarik zabalena egin omen du: hamahiru mila atsotitz eta esaera zahar ditu bilduak.

Hogeita zazpi urte iragan omen ditu Gotzon Garate jesuitak bilduma hau osatzen. Euskalerriko zazpi probintzietan, baserriko zazpi probintzietan, baserriko zazpi probintzietan, baserriko zazpi probintzietan, base-  
rriz baserri, zaharrei behar den denbora hartuaz jasotako bilduma omen da hauxe. Hogeita bi baserri pasa omen ditu bildu hau egiteko.

Orain argitaratu nahi eta, hor omen ditu komeriak. Argitaletxeek ez omen dute berotasunik azaltzen gisa honetako liburu potolo bat argitara emateko. Zeren berak esan duenez: "Liburu potoloa izango da, mila orrialde baino gehiagokoa. Horrelako obra zabalena aurrean beldurtu egiten dira argitaletxeak; nik, berriz, nola edo hala atera egin nahi dut; ea instituzio edo aurrezki kuxaren bat animatzen den".

Gaur arte egin diren atsotitz

bildumak, txikiak geratuko dira bilduma honen aurrean, bai Zabalarena, bai Ibarrena bera ere bere loditasunean. Horretaz gain, Garate jauna ez da bilduma bat egitera mugatu. Atsotitz ba-  
koitzaren azalpena ere bertan baitator: "Lana ere, horretxek eman dit lanik gehiena, azalpenak bildu eta idaztea".

Atsotitzat, anitzak izanik ere "eguraldia"ri buruzko esaera zaharrak oso ugariak omen dira. Baita animaliei buruzkoak ere, astoa eta eta txakurra batik bat, hala nola azeria eta otsoa ere. "Erljioa"ri buruzkoak ere, multzo handia. Zer esanik ez abadeei buruzkoak, kritikoak gehienetan. Baita santuei buruzkoak ere .

Obra honen bitxikeria bezala, liburuaren amaieran gaztelaniaz erabilienak diren bi mila atsotitz jartzen ditu horiei euskarazko ordaina ezarriaz. Bestalde, euskal atsotitz batzuen aldamenean latinezko eta ingelesezko ordezoak ere ipini ditu.

G.E.